

Bide Zoruen Plana bukatzean, 53 errepedetan esku hartzeak eta 2 milioi euroko inbertsioa egin ondoren

Blanca de la Peña: “Gure errepedeen kontserbazioan eta mantentze lanetan inbertitzeak segurtasunean inbertitzea esan nahi du”

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 17a. Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak azken hilabeteotan guztira 2 milioi euro inbertitu ditu Arabako 53 errepederen tarte batzuen zoria hobetzeko. Bide Zoruen Planaren 2020ko plangintzaldia egun gutxi barru bukatuko da, esku hartzeak egin ondoren bide nagusietan, hala nola A-1, N-240, N-104 eta N-622 errepedetan, baina batez ere eskualde, toki eta auzobide sareetako errepedetan.

Blanca de la Peña Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatua Azazetako mendatean eta Maeztu inguruan berritutako bidezoria ikustera joan da, Carlos Ibarlucea Bide Azpiegituren zuzendariarekin eta saileko teknikariek batera, eta kontserbazio lanetan inbertsioak egitearen garrantzia nabarmendu du. “Kontserbazioan eta mantentze lanetan inbertitzeak segurtasunean inbertitzea esan nahi du eta, gainera, epe ertainera aurrezte ahalbidetzen du, gure errepedeak gehiago hondatzea saihesten delako”.

“Aurten, 2 milioi euroko inbertsioa egin dugu bidezoriak berritu eta indartzeko, eta hori azken ekitaldietan helburu horretara bideratutako batez besteko aurrekontua baino % 33 gehiago da. Bide horri jarraitu behar zaio”, adierazi du.

Bide Zoruen Planaren 2020ko plangintzaldiak ahalbidetu du Arabako eskualde guztietan zehar banatuta dauden 53 errepedetan esku hartzea, errepedeen tarte eta gune jakin batzuk konpontzeko, zuloak, arrakalak eta deformazioak baitzeuden denbora igarotzearen eta eguraldi txarraren ondorioz. Hauexek izan dira konponketa lanak: gune eta tarte horietako errodadura geruza fresatu eta birjartzea, eta hartxintxararekin ureztatze tratamenduak aplikatzea.

Esku hartzearen xede izan diren errepedeen zerrendan, lehentasuneko intereseko sarearen eta oinarriko sarearen bide nagusietako batzuk daude, hala nola A-1, N-240, N-622, N-104, A-132, A-624 eta A-625 errepedeak, baina jardun gehienak eskualde sarean (10 errepede) eta toki eta auzobide sareetan (36 errepede) egin dira. Helburua da zerbitzu publiko ona bermatzea Arabako landagune txikietan bizi direnei.

2020ko Bide Zoruen Plana A Planaren lerro honen barruan sartzen da: inbertsio publikoari eustea, lurraldeko jarduera eta enpleguari eusten laguntzeko krisialdi honetan.